

## BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 2193

*AGINDUA, 2015eko maiatzaren 13koa, Hezkuntza Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, goi-mailako kirolariak, teknikariak eta epaileak deklaratzeko dena.*

Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuak 4.2 artikuluan xedatzen duenez, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako kirolariaren izaera emango die euren kirol-modalitate eta -diziplinan munduko edo Europako onenen artean daudenei, betiere dekretuan bertan eta haren I. eranskinean ezarritako hautaketa-irizpideekin bat, eta Dekretuaren hurrengo artikuluetan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Dekretuaren 6.2 eta 7.2 artikuluen arabera, bestalde, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailburuak, Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamenez, goi-mailako teknikariaren izaera emango dio dekretuan bertan ezarritakoaren arabera goi-mailako kirolari deklaratu den pertsona baten edo gehiagoren arduradun tekniko nagusiaren eginkizuna betetzen duenari eta goi mailako epaileen izaera honako hauei emango die nazioarteko kirol-lehiaketetan maila horretan aritu eta nazioarteko epaile-aitorpena jaso dutenei, kirol-modalitate bakoitzaren nazioarteko federazioaren organoek egindako zerrendetan jasotako aitorpena, alegia.

Goi-mailako kirolari, teknikari eta epaileen deklarazioak lehen aipaturiko dekretuan ezartzen diren ondorioak izango ditu, eta, haren indarraldia, oro har, lau urtekoa izango da, dekretuan finkatzen den eran.

Aurkeztu diren eskabide guztiak banan-banan aztertu eta baloratu ondoren, Balorazio Batzordeak 2015eko maiatzaren 5ean egindako bilkuran, bidezko proposamena egin zuen.

Ondorioz, hauxe

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Goi Mailako Kirolaren Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, I. eranskinean aipatzen direnak deklaratzeko goi-mailako kirolari, teknikari eta epaile, Goi Mailako Kirolari buruzko uztailaren 20ko 203/2010 Dekretuan ezarritako ondorioekin.

Bigarrena.– Deklarazioa indarrean sartuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindu hau argitaratzen denean.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea agortzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kulturako sailburuari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. eta 117. artikuluek xedatutakoaren arabera, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Herriko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hileko epearen barruan, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumenari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak xedatutakoaren arabera

Laugarrena.– Argitara bedi Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, jende guztiak honen berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko maiatzaren 13a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2015eko maiatzaren 20a, asteazkena

## I. ERANSKINA

Izen-abizenak	Expediente zk.	Modalitatea	Argibideak
Abrisqueta Iturregui, Vanesa	404/15/D	Patinajea	Kirolaria
Alberdi mendizabal, Jokin	386/15/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Aramburu Amorena, Juan Jose	399/15/D	Tiroa	Kirolaria
Baños Indacochea, Leire	389/15/D	Futbola	Kirolaria
Barruetabeña Amilibia, Imanol	371/14/D	Piraguismoa	Kirolaria
Blas Perez, Fernando	393/15/D	Judoa	Kirolaria
Busto Fernandez de Larrinoa, Jaime	387/15/D	Motoziklismoa	Kirolaria
Chourraut Yurramendi, Maialen	410/15/D	Piraguismoa	Kirolaria
Chung Seu, U-Chan	374/14/D	Judoa	Kirolaria
De la Cuesta Esnal, Paul	401/15/D	Neguko kirolak	Kirolaria
Dean Linklater, Bradley	394/15/D	Errugbia	Kirolaria
Elosegi Sistiaga, Ander	411/15/D	Piraguismoa	Kirolaria
Garcia Perez, Nahikari	388/15/D	Futbola	Kirolaria
Gereka Goienetxea, Unai	372/14/D	Piraguismoa	Kirolaria
Hernanz Obrador, Samuel	408/15/D	Piraguismoa	Kirolaria
Martinez de Lizarduy Lizarribar, Iker	392/15/D	Bela	Kirolaria
Moreno Benito, Jon	369/14/D	Piraguismoa	Kirolaria
Murua Astorkiza, Garazi	390/15/D	Futbola	Kirolaria
Olaberria Dorronsoro, Leire	402/15/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Oribe Lumbreras, Richard	382/14/D	Igeriketa egokitua	Kirolaria
Quincoces Altuna, Nahia	407/15/D	Mendia	Kirolaria
Temprano Fernandez, Ana	409/15/D	Eskubaloia	Kirolaria
Tobalina Aspirez, Carlos	395/15/D	Atletismoa	Kirolaria
Uranga Aizpurua, Alex	397/15/D	Surfa	Kirolaria
Zuazubiscar Gallastegui, Illart	391/15/D	Txirrindularitza	Kirolaria
Amenabar Segurola, Unai	59/15/T	Arrauna	Teknikaria
Balenciaga Oleden, Jose manuel	55/14/T	Piraguismoa	Teknikaria
Blas Perez, Fernando	56/14/T	Judoa	Teknikaria
De aymerich de San Román, Javier	60/15/T	Igeriketa egokitua	Teknikaria
Echaniz Peña, Javier	58/15/T	Piraguismoa	Teknikaria
Leanizbarrutia, Alberto	62/15/T	Txirrindularitza	Teknikaria
Magdaleno, Arturo	57/15/T	Taekwondo	Teknikaria
Osa Zendoia, Josu	63/15/T	Surfa	Teknikaria
Samaniego Mijangos, Juan Carlos	64/15/T	Txirrindularitza	Teknikaria